

Espedientearen kodea: 2025ID340005

Espedientearen gaia: Lezo, Oiartzun eta Pasaiaiko udalerrietako gizarte-bazterketako egoeran dauden pertsonentzako Eguneako Arreta Zerbitzuaren Erregelamendua

Titularra: OIARTZUNGO UDALA

DEKRETUA

Udalerri honi dagokio herritarrei gizarte-arreta bermatzea eta haien ongizatea sustatzea, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legean ezarritakoaren esparruan. Lege horrek Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazioak eskuratzeko eskubide subjektiboa aitortzen du, eta hurbiltasunean eta ikuspegi komunitarioan oinarritutako esku-hartze eredu bat definitzen du, bai eta udaleko gizarte-zerbitzuek zerbitzuak ematean duten erantzukizuna ere, hala nola, Eguneako Arreta Zerbitzua, sistema horren katalogoan jasota dagoena.

Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzko urriaren 6ko 185/2015 Dekretuaren 33. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako Eguneako Arreta Zerbitzua udalaren eskumenekoa da.

Interes orokorrekoa da, erregelamendu bidez, Lezo, Oiartzun eta Pasaiaiko udalerrietan gizarte-bazterketako egoeran dauden pertsonentzako eguneako arreta-zerbitzua arautzea.

Herritarrek erregelamendu-mailako arauak egiteko prozeduran parte hartuko dutela bermatzeko, eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133. artikuluan xedatutakoa betez; ordenantza egin baino lehen, aurretiazko kontsulta publikoa egin behar da, herritarrek eta ordenantza eraginpean egon daitezkeen ordezkariak handieneko erakundeek zenbait alderdiri buruz duten iritzia jasotzeko, hala nola, ekimenaren bidez konpondu nahi diren arazoei buruz, hura onartzeko beharrari eta egokitasunari buruz, arauaren helburuei buruz eta egon daitezkeen bestelako irtenbide erregulatuak eta ez-erregulatuak buruz.

Horiek horrela, Toki Jaurbidearen Araudiak ematen dizkidan ahalmenen egikaritzan,

ERABAKI DUT

Lehenengoa.- Lezo, Oiartzun eta Pasaiaiko udalerrietako gizarte-bazterketako egoeran dauden pertsonentzako Eguneako Arreta Zerbitzuaren Erregelamendua egin aurretik, honako memoria hau (I. eranskina) jendaurrean jartzea, 20 egun balioduneko epean.

Bigarrena.- Ekarpenak 20 egun balioduneko epean aurkeztu daitezke erabaki hau udal web gunean argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Hirugarrena.- Kontsulta hau Udal honetako iragarki-taulan eta bere webgunean argitaratzea, herritarrek, erakundeek eta elkarteek egokitzen jotzen badute, gaiari buruzko iritzia helarazteko aukera izan dezaten, Udalaren sarrera-erregistro elektronikoaren edo aurrez aurrekoaren bidez.

Oiartzunen, sinaduraren egunean.

Alkatea

Elektronikoki sinatua



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas	
Titulua / Título:	2025ID340005-Dekretua/Decreto (OIARTZUNGO UDALA)